Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 420

Maiatzak 1, 2022

Opilaren egun borobila

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 San Vicente de Pauleko Majoretteak
5 Opila Eguna
6 Bertso saioa
7 Liburu Azoka
8 Kirolak: Erroibide
9 Kirolak: Santiagotarrak
10 Bloody Mary disko denda
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak / Irunabar elkarteko bertso sorta
13 Beti gazte: Aysha Bengoetxea
14 iGazte
15 Agenda

- Adinekoentzako Egoitzak
- Egonaldi iraunkorrak
- Egonaldi motzak
- Erreabilitaziorako egonaldiak
- Aisaldi egonaldiak
- Konbalezentzia egonaldiak

Eta Caser Cuidadosekin, etxean behar dituzun zaintza edo laguntza zerbitzuak kudeatzen dizkizugu

caser residencial

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - Irun

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161- HONDARRIBIA

900 103 348
caseresidencial.es

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

29106

34404

48967

1922ko maiatzaren 7an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte Irunen albiste izan ziren gertaerak islatzen ditu. Aldizkariaren 349. zenbakiko lehen artikuluan Donostiako Ateneoan Itun Ekonomikoa eztabaidatzeko antolatutako hitzaldien ostean, aldizkariko P. Sarasqueta kolaboratzaileak mintzaldietan hartutako akordioak gauzatzea eskatzen du. Jarraian, Vladimirok, Sanmartzialak gero eta hurbilago daudenez, guduaren mendeurrena gogoratzeko jardunaldi literario bat antolatzea eskatzen du, jaietako ekintzak antolatzeko aurrekontua handitu ostean. Yolek kudeatutako "Versos románticos" atalean Landetan gertatutako maitasun istorioa irakur daiteke. "La preocupación del momento" testuan, berriz, Zabala futbolariak Real Unionen hurrengo partidua zein posiziotan jokatuko duen eztabaidatzen da.

Bigarren orrialdean, kirol albisteekin jarraituz, Bordelen Espainiako futbol selekzioak Frantziakoa nola garaitu duen kontatzen da. Era berean, Amuten goiz horretan bertan jokatzekoa den partidua aipatzen da. Kirol atalaren amaieran jakinarazten da 24an eta 25ean Real Unionek Belgikako Daring taldearen aurka jokatuko duela. Consuelo Larrañaga anderearen heriotza jakinarazten duen albiste laburraren ostean, ogiaren prezioaz eztabaidatzen da berriro ere, Regueiro jauna interpelatuz.

"Notas Municipales" atal finkoak biltzen ditu azken udal bilkuran hartutako erabakiak. Ondoren, jakinarazten da jarraian eta "El Bidasoa" aldizkariaren hurrengo zenbakietan Satarka kolaboratzaileak "Txinparrtak" liburuan bildutako euskarazko bertsoak argitaratuko direla. "Noticias" atalean Bidasoko trenaren ordutegi berriak aipatzen dira, udalak onartutako aurrekontuak, Udal Musika Bandaren hurrengo kontzertuak, Langilearen eguneko ekitaldiak eta jaunartzeak, beste hainbat konturen artean.

Argazkiak:

29106: Trena Irungo Nazioarteko Zubia zeharkatzen.

34404: Irungo suhiltzaileak 1951. urtean.

48967: Colón pasealekuko etxeen atzealdeko bista. Bigarren planoan Probintziako Etxe zaharra, Larramendirena Etxea, Alaia lursaila, Olazabal jauregia, Aiako Harria, etab. (1916 baino lehenagoko irudian).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskara arloaren ildo estrategikoen errepasoa legegintzaldia amaitzeko urtebete falta denean

Legegintzaldia amaitzeko urtebete falta denean, Miren Echeveste ordezkariak egun Euskara arloak zabalik dauzkan lan ildoak eman ditu ezagutzera. Echevestek gogoratu du Euskara arlotik abiatutako ekintza guztien helburua dela Irungo udalean zein herrian euskararen erabilera sustatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeaz gain. Horretarako, udaleko arlo guztiek eta euskararen aldeko gizarte eragileek indarra batzea funtsezkoa da, zeharkako lan ildoak ezarri eta ekintza zehatzetan elkarlana bultzatzeko.

Legegintzaldi honetako helburu estrategikoetako bat izan da Kalean Bai plana biziberritzea. Kalean Baik euskarekiko konpromisoa duten eta 25 urtetik beherako gazteekin lan egiten duten kirol, kultura eta aisialdiko elkarteak biltzen ditu. Xedea Kalean Bai komunitatea sortzea da, elkarteen saretzea sustatu, planari atxikitako zerbitzu-katalogoa berritu eta orain herritarrentzako prestakuntzak txertatzeko fasean daude, elkarteei euskara sustatzeko tresnak ematea ahalbidetuko duena.

Era berean, udalari begiratuta, Irungo udalean euskararen erabilera normalizatzeko planaren eta Euskara sustatzeko ekintza planaren (ESEP) azken txanpan izango da aurtengoa, izan ere biak 2018-2022 aldirako onartu baitziren. Normalizazio planari dagokionez, azpimarratzekoa da langile askok aurrerapausoa eman dutela beren arloetan euskararen erabilera sustatzeko ardura beren gain hartzeko. Hain zuzen ere, kalean gertatzen den modu berean, euskararen ezagutza maila erabilera maila baino askoz altuagoa da udaletxean. Ekintza plana oso bestelakoa da, hain zuzen ere Irungo herrian euskara sustatzea baita planaren helburua, eta, horrenbestez, gizarteari zuzendutako ekintza ugari jasotzen ditu: adibidez, Solas Jolas, dirulaguntza lerroak (Euskaraz Baietz, Gu ere Bertsotan, hizkuntza paisaia euskaratzeko laguntzak, euskara ikasteko bekak...), Irunero aldizkaria, Euskaltegiko ikastaroak, euskararen hilabetea (martxoan), euskararen nazioarteko eguna, Laburbira, mintzodromoak, Familia Ola, Udagiro, errefortzu eskolak, Euskaraldia eta, aurten lehen aldiz, Haurrak Parkean. Nolanahi ere, Euskara arloak zuzenean garatzen dituen ekintzez gain, Echevestek gogoratu du udaleko beste arloek euskaraz garatzen dituzten ekintzak ere azpimarratu behar direla.

Aipamen berezia merezi dute Euskaraldiak eta Haurrak Parkean ekimenak. "Zuzenean gure ohiko jardueretara hurbiltzen dira, gure eguneroko bizitzan hizkuntza ohiturak aldatzera bultzatzeko", azaldu du Euskara ordezkariak. Horrela, Euskaraldia biztanleria helduari zuzentzen zaio, baita merkataritza munduari ere, eguneroko jarduerak euskaraz egin daitezen. Haurrak Parkean ekimenaren bitartez, begiraleak eramaten dira Irungo parkeetara, han jolasean dabiltzan haurrak euskaraz jolastera animatzeko, talde jolasen bitartez.

Euskara pandemiaren eraginpean

Pandemiak zuzeneko eragina izan du hizkuntza ohituretan, baita gure kontsumitzeko moduan ere. Batez ere biztanleria gaztearen artean areagotu du informazio eta komunikazio teknologien menpekotasuna eta horietan hizkuntza hegemonikoak gailentzen direnez, pandemian zehar euskararekiko esposizio maila txikitu egin da. Euskararik ez dakiten familietako gazteek udaran euskararekin lotura galdu ez dezaten, Errefortzu Eskolak ekimena sortu zen eta aurten ere errepikatuko da.

Era berean, helduagoei begira, Lannahi programa abian jarri zen Irungo Euskaltegian, langabezian dauden hiritarrak edo % 50eko lanaldia edo gutxiago duten landunak doako euskara ikastaro trinkoak baliatu ditzaten. Eta, aldi baterako lan erregulazioko espediente (ERTE) baten menpe dauden langileentzat ere zabaldu da berriki doakotasun-aukera hori.

Irungo historia hiriko ikasleengandik gertuago

Memoria Historikoko arloak proiektu pilotu bat jarri du abian irungo historia ikastetxeetara modu berritzailean eta aitzindarian eramateko. Santi Jiménez ordezkariak, Gorka Añibarrok lagunduta, Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ekimena dela azaldu dute. Proiektua Euskape enpresarekin batera landu da.

Ordezkariak azaldu duenez, iazko azarotik Irungo ikastetxeekin eta memoria lantzen duten erakundeekin elkarlanean aritu dira memoria historikoaren inguruko zenbait jarduera egiteko. "Bilera horien emaitza da proiektu hau", adierazi du Santi Jiménezek. Memoria historikoaren inguruan hirian egingo den lehen escape street-a da. Jardueraren helburua Irungo ikasleak memoria historikoaren inguruan kontzientziatzea da, logika, orientazio eta abileziako jokoen bidez. Proiektu pilotu honetan DBHko 3. eta 4. mailako 300 ikaslek baino gehiagok parte hartuko dute, Txingudi, Toki Alai eta Eguzkitzakoak. Jokoaren saioak maiatzaren 2tik 6rako astean egingo dira.

Hiria bera erabiliko da jokoaren agertoki gisa eta, beraz, jarduera mugitu eta dinamikoa izango da. "Oso modu aproposa da jokalariek beren ohiko ingurunean ikas dezaten, eta ingurune hori beste modu batean ikusteko gauza izan daitezen", adierazi dute Memoria Historikoko arlotik. Jokoan hiriko intereseko sei gune bildu dira. Gune horiek zuzeneko lotura dute memoria historikoarekin, leku bakoitzean iraganean gertatutakoen berri emango baita. Intereseko gune batetik bestera pasatzeko, bizkortasun, logika eta abilezia mentaleko zenbait proba gainditu beharko dira, betiere hiriaren historia pedagogikoki ikasteko asmoz.

Gune hauek izango ditu jokoak Irunen:

1.- Nazioarteko zubia: Lehen puntu honetan, zubia ihes egiteko bide izan zeneko urteak ekarriko ditugu gogora. Biktima horietako asko hilabete batzuen buruan itzuli ziren, beste batzuk urte batzuen ondoren, baina ehunka pertsona ez ziren inoiz itzuli.

2.- Gal estadioa: Futbol zelaitik haratago, bertan izandako kontzentrazio esparruaren zantzuak bilatu eta oroituko ditugu.

3.- Olaberriko kanala: Presoek eraiki zuten kanal/errekasto hau, Francoren garaian, kartzelaldiak murrizteko. Kanala bi urtean egin zen, eta oso baldintza gogorretan aritu ziren lanean langileak, egunean 12 ordutik gora ere lan eginez.

4.- Irungo Udaletxea: Informazio puntu bateratua. Komunikazio puntua. 1936an ez zegoen mugikorrik, ez internetik. Hiritik kanpoko, gerra-fronteko eta abarreko albisteen berri izateko aukera bakarra udaletxera joatea zen.

5.- Irungo kasinoa: Oso eraikin ezaguna da, Colón pasealekuan. Eraikin historikoa da, eta erreferentea izan zen gerra garaian. Jantokia izan zen, antolakuntzako eta hornikuntzako tokia, etab.

6.- Zentro errepublikanoa: Jarduera politiko errepublikanoaren gunea Zabaltza plazan. Bilerak, mobilizazioak, manifestazioak eta abar egiten ziren bertan. Eraikin horrek Bigarren Errepublikan izan zuen historia eta garrantzia ezagutzera ematea da helburua.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Estatu mailako majoretteen talderik zaharrena Irunen sortu zen duela 50 urte

50 urte bete dira San Vicente de Pauleko majoretteen taldea sortu zenetik. Estatu mailan sortutako mota honetako lehen taldea izan arren, majoretteen taldeak lehenengo eguneko gogoei eusten die 25 kide ingururekin. Urteurren borobila ospatzeko maiatzaren 7rako San Vicente de Paul eskolan egingo den ekitaldi berezia prestatzen ari dira. Florencio Abadek taldearen sorreraz eta orainaz hitz egin du.

50 urteren ostean, majoretteak Irunen izaeraren parte dira?
Bai. Horren guztiaren sortzailea sor Paz izan zen, eta gaur egun taldearen buru izaten jarraitzen du. Logikoki 50 urte igaro dira eta aldaketak izan dira denbora guzti honetan. Orain beste kolaboratzaile batzuk batu zaizkio taldeari, eta sor Pazekin batera ari dira taldea zuzentzen. Hasiera batean, majorette taldea aparteko jarduera gisa sortu zen ikasturte amaierako festa bat ospatzeko. Festa hura ospatu ondoren, taldeak aurrera egin zezakeela bururatu zitzaion sortzaileari, dena oso ondo atera baitzen. Beraz, majoretteen taldea ustekabean eta bat-batean sortu zen, baina denboran iraun du eta hor jarraitzen du.

Zerbait berria zenez, hastapenak errazak izan ziren?
Gauza guztietan gertatzen den bezala, zerbait berria denean, bere une zailak izan zituen, inertzia hartu eta aurrera egitea lortu zen arte. Taldea osatzeko adina neska bildu ziren, eta horrek hainbat jardueratan parte hartzeko eta jarduera ezagutzera emateko aukera eman zuen. Beraz, pixka bat zaila izan zen, baina aurrera jarraitu da, eragozpen guztiak gainditu dituz. Estatu mailan, herrialdeko talderik zaharrena da, beraz, horrek zerbait esan nahi du. Taldea estatuko talde guztien zorion mezuak jasotzen ari da urteurrenagatik.

50 urteetan emanaldiak eta irteerak asko izango ziren, ezta?
Aurten 1.000 jardueratara iritsi behar genuen pandemiagatik izan ez balitz, eta horrek jarduerak gutxienekora murriztea eragin du. Osasun larrialdia zela-eta geldialdia egin ondoren, 2021aren amaieran ekin zitzaien berriro jarduketei, eta orain arte urriak eta oso noizbehinkakoak izan dira. Oraintxe bertan 950 inguruan egongo gara, eta hori oso kopuru ona da. Urte honetan zehar zenbaki biribila lortzea gustatuko litzaiguke: 1.000.

Nola egin dio aurre taldeak pandemiari?
Majorette taldeak, une bakoitzean eskatutako neurri guztiak hartuta, lanean eta entseatzen jarraitu du. Orain taldeak gogo handia du emanaldiak eskaintzeko, egindako lan guztia erakusteko. Azken batean, taldeak udalak antolatutako aktibitateetan parte hartu du. Adibidez, Gabonetako programazioan edo Errege Magoen kabalgatan; beraz, pixkanaka aurreko errimoari heltzen ari zaio. Era berean, hiriko bizilagunen elkarteei eskatu diegu gure taldea kontuan har dezatela antolatzen dituzten jaietarako, eta, horri esker, urte honetako hainbat jarduera ditugu aurreikusita.

Zein izaten dira San Vicente de Pauleko majoretteen jarduera nagusiak?
Jarduera gehienak hirian egiten dira, eta bizilagunen elkarteen bidez jasotako gonbidapenen bidez parte hartzen dute. Halaber, jarduerak egiten dira erretiratuen etxeetan eta adinekoen egoitzetan. Horrez gain, GKEekin lankidetzan aritzeko ohitura dugu; adibidez, orain ASPACErekin bat egitea aurreikusi dugu, haien urteurrena ospatzeko. Hiritik kanpo, beste probintzia batzuetara irteerak egin dira eta "España Directo" telebista-programaren gisakoetan ere parte hartu da. Frantzian ere egin dira emanaldiak. Beraz, esan daiteke taldeak konta ezin daitezkeen emanalditan parte hartu duela.

Gaur egun, zenbat kide ditu taldeak?
Taldea 20 edo 30 kide ingurukoa da. Egia da pandemiaren ondoren zenbait kidek taldea utzi dutela, baina oso pozik gaude, egoera gorabehera, taldea mantendu egin delako. Azken bajen ondorioz, taldearen batez besteko adina nabarmen jaitsi da, kide berri asko baitaude. Taldeak aurrera jarraitzen du jende gazteari esker, eta oso ondo ari dira lanean.

Edonork eman dezake izena taldean, ikastetxeko ikasle izan beharrik gabe?
Izen ematea edonorentzat dago zabalik eta horrela jakinarazi da. Gaur egun, San Vicente de Paul ikastetxean ikasten ez duten majoretteak ditugu. Entseguak larunbatetan egiten dira, 11:00etatik 12:30era, eta neskek zein mutilek parte har dezakete.

Hasieran taldea neskatoek bakarrik osatzen zuten arren, hori aldatu egin da?
Bai, jakina, orain haur guztiek parte har dezakete. Duela urte batzuk, mutiko batek taldeko kide izateko nahia adierazi zuen eta ez zen arazorik izan. Une honetan taldeak bi edo hiru mutil ditu eta asko gustatzen zaie bertan parte hartzea.

50. urteurrena ospatzeko jarduera berezirik antolatu al duzue?
Ospakizun berezia maiatzaren 7an egingo da, baina urte osoan zehar hainbat jarduera egingo dira. Maiatzaren 7an, arratsaldean, meza emango da ikastetxean. Gainera, harrera bat egingo zaie antzinako majorette guztiei, guztiak gonbidatu baititugu, taldeko egungo kideak zein antzinakoak. Gaur egungo kideek dantzaren bat egingo dute, eta antzinakoek ere dantza egiteko aukera izango dute, majorette iragana gogoratzeko. Erakusketa bat prestatzen ari gara bideo, argazki zahar, objektu eta jantziekin. Udalbatza eta 50 urte hauetan gurekin lankidetzan aritu diren elkarte guztiak gonbidatu dira ekitaldira. Oso egun berezia izatea espero dugu, antzinakoek garai zaharrak gogoratzeko eta belaunaldi berriek beraiengandik ikasteko balio izatea, beste 50 urte gehiago jarraitu ahal izateko.

Bi urteren ostean Irungo plazak eta elizak bete egin dira goratutako Opilak bedeinkatzeko

2022ko apirilaren 25ean hiriko ohitura berezienetako bat berreskuratu zen. San Markos eguna ospatzeko haurrek amabitxiek oparitutako Opilak bedeinkatu zituzten, beren lagun eta senideen konpainian. Opilak bedeinkatzeko ekitaldiak Irungo eliza guztietan egin ziren.

Bi urteren ostean, eguraldiak ere San Markos egun berezia ospatzeko aitzakia eman du, egun argitsu eta eguzkitsua eskaini baitu. Izan ere, aurreko bi urteetan bedeinkapena zuzenean egitea ezinezkoa izan da pandemiaren ondorioz. Orduan ur bedeinkaturik aurrez aurre jaso ez eta apaizen hitzak irrati eta telebista bidez iritsi ziren haur irundarren Opiletaraino. Orduko ospakizun bakartiak atzean utzita, aurten asko eta asko izan dira Opila Eguna ospatzeko kalera atera direnak, Junkal plazatxoan hartutako irduiek erakusten dutenez.

Apirilaren 25az gozatzeko gogoak bultzatuta, irundarrek Opilak haurren izenak josita daramatzaten oihaletan sartu, korapiloekin lotu eta hiriko kale eta inguruko mendietara hurbildu dira San Markos eguna ospatzeko. Apaizak ur bedeinkatua jaurtitzerakoan haurrek indarrez goratu dituzte opilak, ondoren bilgarria kendu eta amabitxiak mimoz egindako oparia dastatzeko. Jarraian, Junkaleko Andre Mari Elizaren aurreko plazan ospatutako Opilen bedeinkapeneko argazkiak ikusgai.

Bertsotan hezkuntzaren eta euskararen alde

Biriatuko ikastolak bertso saioa antolatu du maiatzaren 14rako. Maialen Arzallusek, Andoni Egañak, Amets Arzallusek, Maialen Lujanbiok eta Maddi-Ane Txoperenak parte hartuko dute herriko ikastolarentzako dirua biltzea bilatzen duen ekitaldian. Sarrerak 10 euroko prezioa du, haurrak doan eta Silvia Uzalek eta Brais Perezek azaldu dutenez aldez aurretik tiketak eskuratzeko bide ugari daude.

Ez da bertso saio hau egiten duzuen lehenengo edizioa, ezta?
Silvia: Ez, ikastola 2015eko irailean sortu zen eta udaberri horretan egin zen lehen bertso saioa. Orain bosgarren edizioa antolatzen ari gara.

Bosgarren edizioa izanda, jada herrian errotutako ekintza da?
Brais: Bai, ekintza nahikoa arrakastatsua izan ohi da. Jende dezente etortzen da, bai bertakoak zein inguruko herrietakoak.

Aurreko bi urteetan ordea, pandemiarengatik bertan behera geratu zen?
Silvia: Ba bai, nik uste guztiok gaudela etxetik ateratzeko gogoarekin. Bertso saioaren ostean, pintxo pote bat antolatuko dugu, beraz, egun horretan festa giroa ziurtatua egongo da.

Zer helbururekin hasi zineten ekintza hau antolatzen?
Brais: Alde batetik, ikastolarentzako dirua biltzea da helburua, behar beharrezkoa da eta. Bestetik, Biriatu herrian euskal kulturari tokitxo bat egin nahi izan diogu, euskara eta euskal kultura elkarrekin doazela ulertzen dugulako. Biriatun euskara hutsean lan egiten duen eragile bakarra garen aldetik, gure ardura da bertan euskararen aldeko ekintzak bultzatzea.

Biriatuko ikastolak antolatutako ekintza da. Zeintzuk dira ikastetxe honen berezitasunak?
Silvia: Ikastola txiki bat da, hiru familia eta bost haurrekin sortu zena. Gaur egun 15 familiek eta 21 ikaslek osatzen dute. Guk beti eskola inklusibo gisa deskribatzen dugu, adin ezberdinetako ikasleen arteko kooperazioa bultzatzen duena. Bi urte eta erditik, hamaika urte bitarteko haurrek ikasten dute bertan, euskaraz ikasten dute eta 6 urtetik aurrera ere frantsesa irakasten da. Natur ingurunean txertatuta dago, baina herriko girotik ere oso hurbil.

Brais: Polita da ere klase berean adin ezberdinetako haurrak nahasten direla. Elkarrekin jolasten dute eta elkarri laguntzen diote. Oso polita da beraien arteko harremana ikustea.

Ikastolako ikasleentzat ere nolabaiteko onura dakar ekitaldiaren antolaketak?
Brais: Bai, hori da. Alde batetik, onura ekonomikoa dago, inguruko enpresak ekitaldia antolatu ahal izateko beren ekarpena egiten baitute. Izan ere, ekarpen horren bidez enpresak berak proiektuan inplikatzeko modua da eta beraiei esker babestuak sentitzen gara. Kulturalki ere gure herriari ekarpena egiten diogu.

Zein bertsolarik parte hartuko dute aurtengo saioan?
Silvia: Aurten Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Arzallus eta Maddi-Ane Txoperena izango ditugu bertso saioan. Guztira, aurtengoak bost bertsolari dira.

Antolaketan Amets Arzallusen laguntza izatea eskertzekoa da?
Brais: Noski, bere esperientziak asko lagundu digu. Bera oso sustraitua dago Biriatun, nahiz eta hendaiarra izan, baina lotura handia du Biriaturekin. Beti dago prest ikastolarekin kolaboratzeko eta bide honetan asko lagundu digu.

Zein izango da saioaren dinamika?
Silvia: Bertso saioa maiatzaren 14an egingo da, gauean. Ekintzak 17:30ean hasiko dira eta eguraldi ona egiten badu, saioa herriko frontoian egingo da. Eguraldi txarra egiten badu, berriz, eliza barruan. Bestetan ere horrela egin izan dugu eguraldi txarra izan dugunean.

Jende asko erakarri ohi duen ekitaldia al da?
Brais: Bai, jende dezente etortzen da. Ekitaldian 200 edo 300 pertsonentzako lekua egongo da eta asko bete izan dugu. Gainera, inguruko aitatxi eta amatxi asko hurbiltzen dira saiora eta oso polita da hori ikustea, beraientzat ere oso egun berezia baita. Era berean, jende asko etortzen da Irun eta beste herrietatik.

Nola lortu daitezke sarrerak?
Silvia: Batetik, bi telefono zenbaki dauzkagu, horietara deitu eta sarrerak erreserbatu ahal izateko: +33 673 190 707 eta +34 657 735 290. Bestetik, sarrerak posta elektroniko bidez eskatu daitezke bertsosaiobiriatu22@gmail.com helbidera idatziz. Azkenik, sarrerak aurrez aurre erosi nahi badira, zuzenean erosi daitezke Pausuko Xaia tabernan.

Uste duzu datozen urteetan ekintza errepikatzen jarraituko dela?
Brais: Bai, gure ikastolak antolatzen duen ekintza bitxia da eta ilusio handiz antolatzen den ekintza izanda, gauza politak ateratzen dira. Beraz, gu ekintzarekin aurrera egiteko prest gaude.

Irakurleentzako egun preziatua Irunen, Pio Baroja gogoan

Urtero moduan, apirilaren 23an ospatzen den Liburuaren Egunarekin batera, Liburu azoka antolatu da Irunen. Egun bakarrera mugatu gabe, asteburu osoan zehar literaturarekin lotutako ekintzak egin ziren Irunen. Zabaltza plazan ipinitako karpan liburuak erosteaz gain, hitzaldi, liburuen sinadura ekitaldi eta tailerretan parte hartzeko aukera izan dute irundar irakurleek. Azokan Elkarte eta Tinta Comics liburu dendek parte hartu zuten.

José Antonio Santano alkateak eskerrak eman dizkie hiriko kultura arloari eta idazleei Liburuaren Eguna ospatzeko hain programa zabala sortzeagatik. "Aurtengoa berezi samarra da guretzat, Pio Baroja jaio zela 150 urte betetzen baitira", azpimarratu du José Antonio Santanok. Irungo alkatearen arabera, Pio Barojarekin zor bat izango du beti, berari esker XX. mendeko idazlerik onenetako bat izan baitzuen hiriak. "Baroja, gizon eta emakume unibertsal askorekin gertatzen den bezala, erroak askatasunez izatea erabaki zuen idazleetako bat izan zen, eta Bidasoko biztanle egin zen, "El Pais del Bidasoa" aurkitu, eta hori Bidasoko Errepublika Independente bihurtu nahi izan baitzuen". Alkateak aurreratu duenez 2022. urtea amaitu aurretik idazle bidasotarra gogoratzeko hainbat ekintza egingo dira hirian.

Marian Mateos Irungo Udaleko Kultura teknikariak adierazi duenez Liburuaren Azokak aurreko urteetan izandako ereduari eutsi dio. "Orain dela pare bat urte Irungo Liburu Azokaren eredua zabaltzeko aukera izan genuen eta ordutik horrela egin da". Gainera, musukoa espazio itxietan erabiltzera behartzen zuen legea desagertu berri denez, Materos teknikariak uste du askatasun berri horrek azokan antolatutako jarduerak bultzatzeko balio izan duela.

"Aurtengoa berezi samarra da guretzat, Pio Baroja jaio zela 150 urte betetzen baitira"

José Antonio Santano, Irungo alkatea

Proco Gómez
Ahal dudan guztietan gustatzen zait Irungo Liburu Azokara hurbiltzea, horrelako ekitaldiek garrantzi handia dutela uste baitut. Karparen erdian dagoen erakusketaren bidez, Pio Barojaren liburuak gogoratzen aritu naiz, denoi eskolan irakurrarazi zizkigutenak, eta adin hartan astun samarrak izan zitezkeela ondorioztatu dut. Hala ere, ez dut uste paperezko liburuak irakurtzeko ohitura galdu behar denik.

Mamen García
Irungo Liburu Azoka oso interesgarria iruditu zait. Pandemiari esker uste dut asko garela irakurtzeko ohitura berreskuratu dugunak. Nik egoitza batean egiten dut lan eta denbora honetan asko sufritu dugu, baina irakurketak dena hobeto eramaten lagundu digu. Azokara irakurtzeko liburu berri baten bila etorri naiz, baina oraingoz ez dut ezer aurkitu, uste dut asteburuan eskaintza berritzen joango direla.

Yolanda Allende
Triste samarra iruditu zait Irungo azoka bi liburu dendaz osatuta egotea. Lehen behintzat Brönte izeneko bat zegoen, baina zoritxarrez itxi egin behar izan zuen. Horiek bezalako liburu dendak ezinbestekoak iruditzen zaizkit, beren irakurketa klubaren eta lanaren bidez argitaletxe berriek argitaratutako lanak proposatzen baitzituzten, eta hori oso beharrezkoa da. Tinta Comicsen postua asko gustatu zait bere eskaintza ezberdinagatik, izan ere, Elkar dendaren alboan bizi naiz eta oso ohituta nago bere erakusleihoa begiratzera.

Aimar Rodríguez
Funtsezkoa iruditzen zait, bai orain bai urte osoan zehar, literatura eta irakurketa sustatzeko jarduerak egitea. Ni alabarekin hurbildu naiz azokara; izan ere, txikitatik irakurtzearen garrantzia irakatsi nahi izan diogu, sormena edo irudimena bezalako beste alderdi batzuekin batera. Oso ideia ona iruditu zait tailerrak antolatzea, txikienei liburuen mundua erakargarriagoa izan dakien.

Ana Iturria, Erroibide saskibaloi klubeko lehendakaria:

“Guretzat beti garrantzitsuena izan da jendeak ondo pasatzea eta hori gure taldeetan argi eta garbi ikusten da”

Denboraldia amaitzear da Erroibide saskibaloi taldearentzat. Bigaren nazionaleko mutilek hurrengo denboraldirako maila berean jokatuko dutela ziurtatu dute denboraldia amaitu aurretik. Nesken kasuan, senior taldeak orain arte jokatutako partidu guztiak irabaztea lortu du denboraldi bikaina eginez. Ana Iturria Erroibide klubeko lehendakariak adierazi du orokorrean denboraldi hasieran finkatutako helburu guztiak bete egin direla.

Duela urtebete baino gehiago hitz egin genuen azkenekoz. Ordutik hona gauzak asko aldatu dira klubean?

Egia esan, gutxi aldatu dira gauzak, pandemiaren gaiarekin egoera nahiko zalantzazkoa zen eta, beraz, ahalik eta gehien egonkor mantentzen saiatu gara. Urduri samar jarri ginen, ez genekielako zer gertatuko zen saskibaloiarekin, eta horregatik ez dugu gehiegi arriskatu nahi izan. Hasieran batez ere konturatu ginen jendea ez zela seguru sentitzen zelaira itzultzerakoan eta hainbeste jenderen artean jolasten. Datorren urtean ikusiko dugu nola gertatzen den dena eta zenbat jende dugun jokatzeko prest.

Denboraldiak gutxienez berri on bat ekarri du, bigarren nazionaleko taldeak kategoria berean mantentzea lortu duelako jada, ezta?

Bai. Jokalariak lorpenarekin oso pozik daude. Gainera, denboraldiko erronkei aurre egin ahal izateko jokalariek gainontzeko taldeetako jokalarien babesa jaso dute eta oso pozgarria izan da hori ikustea.

Denboraldian zehar egindako lanaren emaitza izan da?

Bai, kirolarien jarrera oso ona izan da eta, beraz, taldeak oso joera ona izan du denboraldian zehar. Denen artean lortu dute denboraldia aurrera ateratzea.

“Datorren urtean ikusiko dugu nola gertatzen den dena eta zenbat jende dugun jokatzeko prest”

Emaitzak ondo egindako lanaren erakusle dira?

Oso gutxi izan dira denboraldian zehar galdutako partiduak. Azken batean, guztiok dauzkagu egun txarrak, baina kontuan izan behar da nolako eragina duen horrek taldean.

Nesken kasuan, berriz, nolakoa izan da denboraldia?

Erroibide klubean neskez osatutako lau talde dauzkagu. Txikienak orain partiduak jokatzen hasi dira eta beraientzako ikaskuntza handiko urtea izan da. Izan ere, partiduak jokatzen hasi arte ez duzu ikasten zer sentitzen den galtzerakoan, beraz, sentimendu horiek kudeatzen ikastea ere garrantzitsua da. Gainera, lehen urtea izanda normala da partidu asko segidan galtzea, baina pixkanaka taldea indartuz doa eta beraien artean ezagutzea asko laguntzen du. Orduan oraindik pozgarriagoa da haientzat partidu bat irabaztea. Senior taldearentzat, aldiz, denboraldi izugarria izan da, orain arte jokatutako partidu guztiak irabazi dituzte eta. Joera ona izateaz gainera, garrantzitsua da beraien artean ondo konpontzea eta harreman ona izatea.

Denboraldi hasierako helburuak bete egin dira?

Bai, guretzat bai. Guretzat beti garrantzitsuena izan da jendeak ondo pasatzea eta hori gure taldeetan argi eta garbi ikusten da, giroa oso ona baita.

Txikienek, berriz, berriro partiduen eta entrenamenduen erritmoa berreskuratu ahal izatea eskertu dute?

Bai, noski. Txikienen kasuan gertatu zaiguna da Erroibidera jokalari berri asko batu zaizkigula. Beraz, ezinezkoa izan zaigu jokalari guztientzako fitxak lortzea. Dena den, momentuz egokitu zaien taldera oso ondo moldatu dira eta datorren denboraldia iritsi arteko garaia pazientziarekin ari dira itxaroten.

Aurrekoarekin alderatuta, aurtengoa denboraldi lasaiagoa izan da?

Lasaiagoa ez, baina normalagoa bai. Jokalari asko edukitzea ondo dago, baina horrek ere lan eta ardura gehiago sortzen ditu. Egun ia 200 pertsonek osatzen dute taldea eta lan asko eragiten du horrek.

Noiz bukatzen da Erroibideren denboraldia?

Maiatzean amaituko da guretzat denboraldia. Gure taldeei orokorrean pare bat partidu geratzen zaizkie jokatzeko. Beraz, maiatza amaierarako dena amaitua egongo da.

Udaran klubaren jarduera guztiz eteten da?

Beste urteetan udara iristerakoan guztiz eten izan dugu gure lana. Aurten, ordea, agian udararako zerbait berezia prestatzen saiatuko gara. Udara iristen denean bada atseden hartu nahi duen jendea, baina, bestetik, txikienek jarduera berriak eskaintzea nahi dute.

Zeintzuk dira zuen aurreikuspenak datorren denboraldirako?

Uste dut klubari buelta bat eman behar zaiola. Oinarrizko beharrak identifikatu behar ditugu, klubari mesede egingo dioten erabakiak hartzeko. Azken bi urteetan pandemia dela eta ez dugu mantentze lana besterik egin, gehiegi arriskatu gabe. Orain kluba handitzeko aukera ikusten dugu, baina ezin da ukatu pausu horrek beldurra ematen digula. Beraz, orain etorkizunean pentsatzen hasteko unea da, erabakiak hartzen hasteko.

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

Santiagotarrak taldeko kirolariak pixkanaka denboraldiko helburuak betetzen ari dira

Santiagotarrak kirol elkarteko kirolariak pixkanaka denboraldiko erronkei aurre egiten ari dira. Santiagotarrak klubeko kirolariek Muturreko Eslalomeko Espainiako Kopako lehen proban taldekako hirugarren postua lortu zuten. Ostean, Segre Cupeko nazioarteko lehiaketan parte hartu dute. Arraun ataleko kirolariek, berriz, Udaberriko Espainiako Openean parte hartu zuten Bañolasen.

Segre Cupeko Nazioarteko kopa

Hamalau piraguistez osatutako talde bat Lleidara abiatu zen Pontseko Mig Segre eta Seu d´Urgelleko Cadí Canoë Kayak taldeek antolatzen duten Segre Cup izeneko nazioarteko lehiaketan parte hartzeko. Aipatu lehiaketa bi lekuetan ospatzen da: lehenengo egunean Seu d´Urgelleko kanal olinpikoan eta bigarrenean Pontseko kanalean. Emaitzen aldetik, aipatzekoak dira Klara Olazabalek lehenengo egunean C1 eta K1 seniorrean lortu zituen bi bigarren postuak eta bigarren egunean, Javier Arruabarrenak K1 juniorrean lortutako bigarren postua eta Maialen Olasok C1 juniorrean eskuratutako hirugarren postua.

Santiagotarrak taldeko Ur Bizietako kirolarientzako hurrengo hitzordua beste nazioarteko lehiaketa bat izango da, Pirinioak Kopa hain zuzen ere. Aipatu lehiaketa lau egunetan eta bi lekutan ospatuko da, apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean Seu d´Urgellen eta maitzaren 7an eta 8an Paben. Gainera, lehiaketa honetan erabakiko da nazioarteko egutegian parte hartuko duten estatuko selekzioen behin betiko kideak.

Banku mugikorreko arrauna

Apirileko bigarren asteburuan banku mugikorreko Santiagotarrak-BM taldeak Udaberriko Estropada Openean parte hartu zuen Bañolasen. Banku mugikorreko Espainiako arraun selekzioan lekua egiteko estropada baliotsua izan zen.

Santiagotarrak-BM elkarteko banku mugikorreko arraun taldeak sei kirolarirekin parte hartu zuen bertan. Kirolari horietako batzuek Espainiako Arraun Federazioaren kontrolpeko lantaldeetan sartu nahi zuten, eta, ondoren, kategoria desberdinetako selekzioek parte hartu zuten. Aitzpea Gonzalezek eta Naroa Zubimendik lortu zituzten Espainiako Federazioak maiatzeko eta ekaineko nazioarteko estropadak prestatzen ari diren taldeetako kide izaten jarraitzeko eskatzen zizkieten gutxieneko emaitzak. Bañolasera joan ziren gainerako arraunlariek ez zituzten lortu Espainiako selekzioaren deialdietan sartzeko behar ziren emaitzak. Bestalde, apirilaren 10ean, S.D.Santiagotarrak-BM klubeko banku mugikorreko arraun taldeak denboraldiko lineako laugarren estropadan parte hartu zuen, Legution. Taldeak 22 txalupa eta 45 arraunlari eraman zituen.

Santiagotarrak klubeko txalupa aipagarrienek beren kategoriako lehen postuak lortu zituzten. Emaitzarik aipagarrienak honako hauek lortutako garaipenak izan ziren: Asier Regueiro gizonezkoen skiff absolutuan, Jone Laguardia eta Elaia Saenz emakumezkoen kadete mailako scull bikoitzean, Ainhoa Zapiain emakumezkoen skiff absolutuan, Ander Ibargoien eta Alex Conde, gizonezko gazteen scull bikoitzean, Elaia Saenz emakumezkoen kadete mailako skiffean, Ander Ibargoien gazteen skiff maskulinoan eta Jone Laguardia, Leire Navaridas, Maria Martinez Lacar eta Maialen Bengoetxea emakumezkoen kadete mailan.

Banku mugikorreko Gipuzkoako arraun ligak 7 lineako estropada ditu, otsailaren 27an Orion, martxoaren 12an Legution, martxoaren 26an Legution, apirilaren 10ean Orion, apirilaren 30ean Orion, maiatzaren 21ean Orion eta ekainaren 4an Legution. Santiagotarrak-BM elkarteko banku mugikorreko arraun taldearen hurrengo estropada apirilaren 30ean Orion jokatuko den Gipuzkoako ligako hirugarren estropada izango da.

Europako pista txapelketa

Apirilaren 23an eta 24an, Verducido hirian (Galizia), Espainiako lehen Sprint Kopa egin zen, eta, aldi berean, Europako eta Munduko txapelketetarako plazak banatzen zituen selekzio proba zen. Santiagotarrak-Urbycolan taldeko hiru piraguista izan ziren bertan: Nerea García, Aitor Gorrotxategi eta Eider Amundarain. Nerea eta Aitor Espainiako selekzioarekin kontzentratuta daude urte osoan. Zorionez, lanak bere fruituak eman zituen eta biek Europako Txapelketarako sailkapena lortu zuten euren kategorietan.

Aitorrek laugarren postu bikaina lortu zuen K1 1000 metrokoan. Horrek aukera ematen dio abuztuaren erdialdean Alemanian izango den Europako Absolutuan K4 1.000 proban parte hartzeko. Bestalde, Nereak ere laugarren postua lortu zuen K1 200 metrokoan, bere kategorian bigarrena izan bazen ere. Horrela, ekainaren amaieran jokatzekoa den Serbiako 23 urtez azpiko Europako Txapelketako K1 200erako sailkapena lortu zuen. Hala ere, Aitorrek eta Nereak oraindik ez dituzte hautaketa-prozesuak amaitu, izan ere, 10 egun barru, Verduidon dute berriro aukera taldeko itsasontzietan Munduko Txapelketetara begira sailkatzeko.

Ur Bizietako Eskolarren Jokoak

Talde irundarrak guztira 14 domina lortu zituen: urrezko 8, zilarrezko 4 eta brontzezko beste 2. Santiagotarretako ur bizietako sekzioko gazteenek bigarren postua lortu zuten apirilaren 24an jokatutako Ur Bizietako Eskolarren Jokoen bostgarren proban. Txapelketa Dunboako kanalean gauzatu zen, Bidasoa ibaian. Talde irundarrak 18 parte hartzaile aurkeztu zituen eta 14 domina lortu zituzten, urrezko 8, zilarrezko 4 eta brontzezko 2.

Lehiaketan parte hartu zuten piraguisten artean Hasberrien kategoriako Suhar Ursua, Carla Graña eta June Amiano nabarmendu ziren, urrezko domina lortu baitzuten K1 zein C1 kategorietan. K1 eta C1ean dominak lortu zituen ere, Haurren kategoriako Maria Garciak, baina kasu honetan, zilarrezkoak. Urrea lortu zuten ere, Josu del Pozok eta Gorka Martinek eta June Celayeta eta Miriam del Pozok osatutako hasberrien bikoteen C-2an. Bere aldetik, zilarra lortu zuten Manex Bereau eta Maya Rueda hasberriek K1ean. Azkenik, brontzezko domina poltsikoratu zuten Josu del Pozo Hasberriak eta Haur kategoriako Haizea Celayak K1ean.

HAMAIKA
- Erreforma integralak
- Diseinua eta interiorismoa
- Altzariak eta ekipamendua
San Markos Plaza 1, Hondarribia + 34 943 64 64 12 www.hamaika.com

Juancar García, Bloody Mary diskoak eta ekoizpenak:

"Musika beti terapia dela uste dut"

Bloody Mary Irungo Cipriano Larrañaga kalean kokatutako musika denda da. 1990eko urriaren 29an ireki ziren dendaren ateak eta ordutik bere atetik atera eta sartu diren diskoen zenbatekoa konta ezinezkoa da. Juncar García dendako jabeak azaldu duenez, Irunen ez ezik, estatu osoko eta nazioarteko bezeroekin lan egiten du.

Musika kontsumoko ohiturak asko aldatu dira denda ireki zenutenetik?
Denda espezializatu batean hasi genuen gure ibilbidea. Garai hartan musika denda asko zeuden, eta iruditu zitzaidan zuzenenagoa edo ez hain arriskutsua izan zitekeela musika denda espezializatu bat irekitzea, besteengandik desberdintzeko. Denborarekin ikusi da erabaki egokia izan zela, beste denda asko itxi diren bitartean guk hemen musika espezializatua saltzen jarraitzen dugulako.

30 urte baino gehiago igaro ondoren, bezero finkoak izango dituzue, ezta?
Bai, bezero finkoak ditugu, baina ez bakarrik Irunen, guk Irundik askoz urrunago ere saltzen baititugu diskoak. Inprentako katalogo tradizional bat egiten hasi ginen, eta postaz bidaltzen genuen. Orain, www.bloodymary.biz webgunearen bidez kudeatzen dugu dena, eta horri esker, Euskadi, Espainia, Frantzia eta beste herrialde batzuetako bezeroengana iritsi gara.

Esperientziak laguntzen al dizue bezeroei aholkuak ematen?
Jakina, behar bezala aholkatzeko, ezinbestekoa da musikaren munduaren ezagutza zabala izatea. Jendea askotan etortzen da guregana aholkularitza edo gomendio bila, eta uste dut hori dela denda espezializatu baten lana. Gaur egun, jendea oso lanpetuta dago gustatzen zaiona bilatzen denbora asko inbertitzeko; orduan, askok nahiago dute hona etorri eta zuzenean guk proposatzen diogunaren artean aukeratzea.

Musika gaur egun ia edonon mundu guztiaren eskura egonda erraza al da bezeroak erakartzea?
Argi dago interneten bidez musika kontsumitzeko aukera dagoela, baina hainbeste banda daudenez, oso jarraipen estua egin behar da gertatzen den guztiaren etengabeko jarraipena egin ahal izateko. Guk hasieratik lan egin dugu banda horiek bilatzeko, hain ezagunak ez izan arren oso onak baitira, eta gure lanak erakutsi digu badagoela publiko bat egiten dugun horretan interesa duena. Horri esker sortu dugu gure identitatea, Bloody Mary bezala.

Pandemia garai zaila izan da guztiontzat. Uste duzu musika terapia gisa erabili dela?
Uste dut musika beti dela terapia. Musika asebetetzea eragiten dizun zerbait da, eta ohikotik, lanetik edo arazo batetik ihes egiteko bide gisa balio dizu. Kasu honetan pandemiak eragina izan du eta nabaritzen da epe horretan jendeak disko gehiago erosi zituela. Azkenean, etxetik irteteko aukerarik ez zutenez edo kontzertuetara joaterik ez zutenez, diskoen salmentak nabarmen egin zuen gora.

Kontzertuen antolatzaile gisa, zuen ekitaldiak berreskuratu dituzue?
Bai, pixkanaka, urte hauetan gure ekitaldietako bat antolatuko dugu berriro. Maiatzaren 6an Marc Ribot 's Ceramic Dog izango dugu Basteron, Andoainen. Gainera, aurten ere Andoain Jaialdia antolatuko dugu Nafarroa plazan, eta ekainaren 11rako antolatzen ari gara, normaltasunera itzuliz.

Gaur egun, Rock and Rollak duela urte batzuetako arrakasta bera izaten jarraitzen du?
Zorionez, Rock and Roll eskola oso irekia da eta genero zabala da. Orduan, oraindik ere asko dira Rock and Rollaren sortzaile gisa deskribatzen diren taldeak.

Zer nolako harrera izan du Record Store Day egunak?
Gure dendak Record Store Day egunean parte hartzen du. Ekimen honetan parte hartzen duen eta disko berriak eta gure estilokoak saltzen dituen denda bakarra garela uste dut. Ondo joan da, baina guretzat ez da ekintza erakargarriena, Estatu Batuetako banatzaile batek esan ohi zuen bezala egun guztiak izan beharko lukete "Record Store Day" eta uste dut hori Bloody Maryren filosofia dela.

Zuen dendan asko nabaritzen da moden eragina?
Bloody Mary denda modetatik aparte egon da beti. Ez zaigu interesatzen, moda egun batetik bestera etortzen eta joaten den zerbait baita. Horrek dendak ireki eta ixtea eragiten du. Gu ohiko komunikabideetan agertzen ez diren baina era berean zoragarriak diren artistak bilatzen saiatzen gara. Gu saiatzen gara artista alternatiboak eskaintzen gure publikoari, beraienganako interesa izan dezaten, eta, horrela, ia inork ezagutzen ez dituen artisten disko asko saltzea lortu dugu.

Musikarako pasioa ere nabaritzen al zaie dendara hurbiltzen diren gazteei?
Belaunaldi berriek mundu honi bultzada berri bat eman diotela uste dut, eta pixkanaka-pixkanaka lehengo artistekiko interesa pizten hasi da, nahiz eta nobedadeek ere beren arreta nabarmen erakarri. Guk adin guztietako publikoa dugu, baina ikusten ari gara publiko gaztea gero eta gehiago hurbiltzen dela.

Nola ikusten duzue Bloody Maryren etorkizuna?
Nik 32 urte daramatzat hemen, eta beti erritmo berean lan egiten dut. Gaurko lanaldian pakete asko dauzkat prestatzeko. Oso zaila ikusten dut hau egun batetik bestera bukatzea, oinarriak ondo finkatuta baititut. Nik uste dut oraindik badudala luzerako soka, eta utzi behar dudan eguna oso ondo uztea gustatuko litzaidake, ez gainbehera doan zerbait bezala. Beraz uste dut Bloody Maryk etorkizun handia duela aurretik.

EGUZKITZA LH2



Eguzkitza eskolako 4.mailakoek, Donostiako Tabakalerakoekin batera, STEAM zientzietako proiektu bat gauzatu dute. Hausnarketa egin ondoren eskolan sortzen den zarataren inguruan neurri batzuk hartu dituzte zarata murrizteko. Horietako bat, argazkian ikusten den bezala, aulkietan tenis pilotak jartzea izan da. Beste aldetik, lan konplexuagoa: SOINUPROMAX 45 soinu neurgailuak egin dituzte.

Denbora-pasak

7 hitz: Fruta-arbolak

X	T	U	Q	E	E	M	F	Z	V	H	Z	F	F
Q	Y	T	L	S	T	R	L	O	C	J	P	J	W
M	U	O	Q	A	R	M	M	B	C	D	U	U	M
A	D	H	G	G	R	G	D	B	Y	V	D	M	U
N	A	Y	E	A	Z	A	G	P	X	C	E	E	E
D	R	L	R	R	F	Y	N	Q	S	N	J	R	Z
A	E	I	E	R	J	M	D	J	P	J	R	T	H
R	O	M	Z	O	B	Z	J	M	O	V	L	X	T
I	N	O	I	N	T	X	Z	V	W	N	F	I	N
N	D	I	O	D	Q	I	M	B	R	J	D	K	Q
O	O	O	N	O	E	N	S	P	L	E	N	O	E
N	R	N	D	Q	Q	F	R	N	J	E	C	N	O
D	S	D	O	I	D	S	L	B	N	B	E	D	R
O	N	O	T	P	M	N	T	R	M	E	X	O	J

Laranjondo, sagarrondo, udareondo, mertxikondo,gereziondo, limoiondo, mandarinondo.

	2		4		7	5		
	5					3	4	6
8	3						9	
6			2			7		
	9		7			4	6	
	7	2	6				8	
3		5						
4			8		6		2	
	6		3					

“Bizitzako gauzarik onenak doan”

Egilea: Aitor Errazkin Vicente

Doinua: Besarkada bat, adiskideak

1)Besarkada bat, adiskideak,
barre alaienak,
amets, maitasun, muxu, familia
eta oroimenak.
Doan direla diote
bizitzan gauza onenak…
Ikus dezagun benetan
hala ote diren denak.

2) Ez da erraza besarkadekin
egitea herren
baina badago lortzen duenik
zaila izan arren
estutu gaiztorik ez da
utziko zaitu pozarren
esku artean aiztorik
baldin eta ez dakarren.

3) Gizakia da animalia
interesatua
zilborrari so bizi beharra
da gure patua
laguntasun ugari da
ertz horretxek urratua
ederki hasiagatik
penagarri bukatua.

4) Irriak irri, barreak barre
algarak algara
poza horien araberako
kontua al da ba?
Nahiz karkailaz jo daitekeen
zorionaren aldaba
grazia gutxi egiten du
gure bizkar baldin bada.

5) Ametsa aske eta doako
dugu, alajaina!
Eta egia bihurtzen saia
gintezke, bai, baina
beti ez da erdiesten
amestutako ordaina
sistema honek ez baitu
gu guztiontzako haina.

6) Maitasunari buruz hainbeste
dago esateko…
Sorta osoa dedikatuta
akaso hobeto
gorrotoak, maiteminak,
frustrazioak tarteko
ifrentzu txarra du txanpon
horrek doan izateko.

7) Muxuak eman soilik onartu
nahi dizkizun hari
gehien behar den unean edo
noizean opari
erne! Eskuraezinak
ere badira eta adi!
Halakoetan eman “pa”
baina zeure buruari.

8) Gaur “familia” aipatzen duen
hark zertaz dihardu?
Batzuk erosi nahian dabiltza
beste batzuk saldu
guk onartu behar dugu
edota familiak gu?
Pagotxa izan daiteke
bietatik baldin badu.

9) Oroimen txarrek egiten dute
pertsona nahasi
irudikortu, lotsagorritu
ta damuarazi
morrontza horretan ezin
zorion betean hazi
onartu eta haiekin
elkarbizitzen ikasi.

10) “Bizitzan gauza ederrak doan”
esaten da hala
salbuespena garrantzitsua
ez balitz bezala
argiune bakoitzeko
loratu denez itzala
kontuak norberak egin
edo desegin ditzala.

IRUNGO LA SALLE LH6

Hizkuntza zabaltzen

Baziren behin bi lagun minak Australian bizi zirenak. Bere ametsa mundu osotik bidaiatzea zen, beraz, bi lagun minek asko ikasi zuten handiak izaterakoan beraien ametsa betetzeko.

Handiak egin ziren eta beraien ametsa betetzeko prest zeuden. Lehenengo New York-ra bidaiatu ziren eta Askatasunaren estatua bisitatu zuten, hainbat gauzekin batera. Ondoren Londres-etik pasa ziren eta Big Ben-a bisitatu zuten beste hainbeste leku eta horrela bisitatu zuten ere Italia, Frantzia, Polonia, Kroazia… Espainiara ailegatu arte.

Espainiako leku guztiak ikusita zituzten Euskal Herria ezik. Beraz bisitatzera joan ziren. Euskal Herria bisitatutako lekuetako hoberena iruditu zitzaien bere hizkunta eta gastronomiagatik. Beraien artean asko hitz egin ondoren erabaki zuten hizkuntz polit hori zabaltzea mundu osotik.

Ordun Espainiatik joan zirenean beste lekuetara, adibidez, Portugalera, Lituaniara, Estoniara… eta horrela mundu osotik Euskara zabaldu zuten.

Naia Piquer Vicente
La Salle LH 6. maila

Aysha Bengoetxea, abeslaria:

“Denbora luzez buruan izan dudan kanta da eta oso pozik nago argitaratu izanaz”

Argazkia: Estudio Gover

“La Voz Kids” programari esker ezagutu zuten askok Aysha Bengoetxeak abesteko duen gaitasun berezia. Telebista saioan bere ibilbidea amaitu zuenetik justu bi urte pasa direnean, abeslari gazteak musikan ibilbide berri bati ekin dio. Bere bakarkako ibilbidea hasteko “No me olvido de ti” abestia kaleratu berri du. Ayshak bere etorkizun musikala nola ikusten duen azaldu du.

Gauzak asko aldatu dira azken elkarrizketa egin genizunetik?
Lehenik eta behin oso pozik nago berriro zuen kameraren aurrean jartzeko aukera izateagatik, izan ere, azkeneko aldiz hitz egin genuenetik gauza asko gertatu dira. “La voz kids” telebista-programatik atera nintzenean produkzio etxe batekin hasi nintzen lanean eta nire lehenengo singela atera nuen, ingelesez, “Echoes” izenekoa. Horren ostean ekoiztetxearekin lan egiteari utzi nion eta nire kabuz lan egiten hasi naiz. Orain, nire bigarren singela atera dut, “No me olvido de ti”. Abestia Alex Ubagorekin eta Ander Pérezekin idatzi nuen.

Zergatik erabaki duzu orain zure ibilbideari bakarrik ekitea?
Momentuz bide honetan bakarrik hastea erabaki dut, orain arte produkzio etxe batekin lan egitea nolakoa den ikusi ahal izan dut. Orain nire kabuz nire bidea aurkitu nahi dut. Produkzio etxearekin izandako esperientziak asko ikasteko aukera eman zidan. Behin hori guztia ikasita, bide berri bat hartu nahi dut, nire kabuz gauzak ikasten jarraitzeko.

Bakarkako ibilbidearekin musikan etapa berri bat hasi nahi duzu?
Bai, guztiz ezberdina izango da. Azken batean, ezberdina izan behar du lan bera egiteak, atzetik lantalde baten pisua izan gabe. Hemendik aurrera ni bakarrik egongo naiz. Hala ere, nire ama arduratzen da orain manager lana egiteaz. Oso urduri nago etapa berri honen hasiera dela eta, baina, era berean, sentitzen dut nire proiektuarentzat une garrantzitsua dela.

Uste duzu ama zure managerra izatea lagungarria izan daitekeela?
Egia esan, oso pozik nago ama manager moduan egiten ari den lanarekin. Batez ere, oso langile fina delako eta berarekin oso harreman ona dudalako. Azken batean, nire ama da eta inork baino hobeto ezagutzen nau, beraz, nork egingo du berak baino hobeto lan hori?

Nolakoa izan da zure bigarren abestiaren aurkezpenak izandako harrera?
Egia esan, oso pozik nago jendeak egin dion harrerarekin. Alex Ubagorekin harremanetan jarri nintzen eta abestia elkarrekin konposatzea proposatu nion. Baiezkoa eman ostean, bere estudiora joan nintzen eta abesti hau sortu genuen. Denbora luzez buruan izan dudan kanta da eta oso pozik nago argitaratu izanaz.

Bigarren abesti honen ostean, zerbait gehiago prestatua duzu?
Nire asmoa da pixkanaka abesti gehiago ateratzen joatea. Gainera, gustatuko litzaidake beste artista batzuekin kolaborazioak egitea eta elkarlanean aritzea. Egunen batean diskoren bat ateratzea gustatuko litzaidake, baina orain nire lehentasuna singelak ateratzea da. Egia da lehen singela atera nuenetik orain arte denbora asko igaro dela. Orain martxa gehiago hartu nahi dut eta ea hurrengoa atera aurretik denbora gutxiago pasatzen den.

Bien bitartean gauza berriak probatzeko eta ikasteko aukera izan duzu?
Bai, tarte honetan gauza asko ikasi ditut. Sare sozialetan ordu asko sartu ditut eta geroz eta hobeto moldatzen naiz. Denetarik ikasi dut, adibidez, konfinamenduan abesti asko konposatu nituen.

Sare sozialetan babes handia jasotzen duzu?
Bai, gaur egun sare sozialak oso garrantzitsuak dira. Garrantzitsua da kontua nola kudeatu behar duzun eta zure publikoari nola hitz egin behar diozun ikastea. Nire sare sozialetan mundu osoko jarraitzaileak dauzkat, esaterako, Argentinan, Mexikon, Kolonbian, etab. Horregatik, garrantzitsua da ordutegiei ere erreparatzea. Guzti hori garrantzitsua da beste artistengandik desberdintzeko. Egun abestiak sortzen dituen jende asko dago eta ez da batere erraza eduki ezberdina sortzea. Beraz, artista bakoitzak bere bidea eta ezberdintasunak aurkitu behar ditu.

Zein estilo landu nahiko zenuke?
Asko kostatu zait nire estiloa aurkitzea. Izan ere, estilo asko egin ditzaket eta uste dut erderaz edo ingelesez abesteko ondo moldatu naitekeela. Nire lehen abestia ingelesez idatzi nuen eta pop estilokoa zen. Bigarrena, berriz, gaztelaniaz idatzi dut eta balada estiloa landu dut. Hurrengo abestietarako ez dut nire estiloa mugatu nahi, gauzak ateratzen zaizkidan moduan egin nahi ditut eta erakargarriak izan daitezkeen proiektuak eraman nahi ditut aurrera.

Uste duzu hiriburu handi batera joan gabe musikan gauza handiak lortu daitezkeela?
Pixkanaka joan nahi dut eta momentuz ez dakit nora eramango nauen bizitzak. Hasieran produkzio-etxea Madrilen zegoenez asko joan behar nuen hara. Orain, nire kabuz lan egingo dudanez, hemen inguruan mugituko naiz eta ikusteko dago zer gertatuko den aurrerantzean.

Inoiz musikaz bizitzeko aukerarik ikusten duzu?
Uste dut lortuko dudala musikaren munduan niretzako toki bat aurkitzea, hau da, nire jarraitzaileak eduki ahal izatea. Horretarako, uste dut funtsekoa dela lan egitea, konposatzea eta pertsona berriak ezagutzea. Horrela jarraituz gero, espero dut lehenago edo beranduago nire helburua lortzea.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Gazteentzako Sorkuntza Bekak 2022

Diru laguntza hauek gehienez 30 edo 35 urte dituzten gazte sortzaileentzat dira (jarduera -ildoaren arabera), 2023an ikusizko arteetan, arte eszenikoetan, musikan, literaturan, diseinuan, komikian eta ilustrazioan garatu beharreko proiektuetarako.

Eskabideak: pertsona fisiko eta juridikoenak, espainiar nazionalitatekoak, eta Espainian legezko bizilekua duten pertsonak, 18 eta 30 edo 35 urte bitartekoak, laguntzaren xedearen arabera.

Aurkezteko epea: apirilaren 8tik maiatzaren 10era, 23: 59ak arte.

Aurkezteko modua: deskargatu eta bete eskabide -ereduak, eta bidali Gazteriaren Institutuko Zuzendaritza Nagusira, deialdi honen ebazpenean zehaztutako bideak erabiliz. Kontuan izan eskaera Injuveren erregistro -bulegoan aurkezteko beharrezkoa dela aldez aurretik hitzordua eskatzea 917827663 telefonoaren edo registrogeneral@injuve.es posta elektronikoaren bidez.

Webgunea: www.injuve.es

Ongizate emozionaleko hitzaldiak

Dya Gipuzkoak ongizate emozionala lantzeko hitzaldi ziklo bat antolatu du Donostian.

Ongizate emozionalaren inguruko 4 hitzaldietako ziklo honetan 4 esparru landuko dira, egun bakoitzean bat.

Ordutegia: 16:00etatik 18:00etara.

Lekua: DYA Gipuzkoako Boluntariotza eta Formazio Gunea (Baratzategi 10 – Donostia)

Prezioa: Doakoa

Irun Sound Corner - Reggae Eguna

12:00etatik 23:00etara, Sargia parkean Reggae kulturaren inguruko egun oso bat ospatuko dugu Konekta zerbitzuaren eta Basque Reggae Kultur-eko gazteei esker. Egunean zehar hainbat ekitaldi izango dira, baita Basque Reggae Cultur, Blackboard Jungle eta Watts Attack-en kontzertuak ere.

Animatu eta zatoz musikaz eta kulturaz gozatzera! Mundiala izango da!

Noiz: Maiatzaren 7an.

Non: Sargia Parkean.

Ordutegia: 12:00etatik 23:00etara.

Prezioa: Dohainik.

Laburrideiak

Film laburren ideia txapelketa16 urtetik gorako edozein pertsonari irekitako LABURRIDEIAK film laburren ideia lehiaketan parte hartzea proposatzen dizuegu, aurretik idazkuntzari dagokionez esperientziarik gabekoek ere parte hartu dezaten. Aurtengo leloa: “Emakume kirola, komeria hutsa?”

Hiru ideia onenek, doako gidoigintzako tutoretza saioak jasoko dituzte (3 saio), ideia gidoi bihurtu arte. Gero, gidoi onena aukeratuko dugu eta 400 euro ere irabazi ditzakezu, baita zure gidoia film labur bihurtzen ikusi ere!

Epea: ekainaren 15a

Sareko sexismoak eta nerabeengan duten eragina

Sare sozialetan etengabe ikusten dira sexismoz eta indarkeriaz betetako iruzkinak, irudiak, bideoak eta audioak, batik bat emakumeez edo LGTBIQ+ kolektiboaz ari garenean. Oharkabean iristen zaizkigu. Ondorioz, horrelako edukiak ikusi edo entzutean, naturalizatzera hel gaitezke. Hori dela eta, benetan garrantzitsua da sexu-heziketa.

Tailer honetan, sare sozialetan zabaltzen diren jarduera eta/edo jokamolde sexista horiek identifikatzen saiatuko gara, bai eta nerabeek ikusten dituzten eduki horiek ere. Horrelako edukiak ikusteak beren bizitzan eta harremanetan zer ondorio izan ditzakeen ere aztertuko dugu. Azkenik, mundu digitalarekin eta nerabeen harremanekin bizikidetzan aritzeko baliabide batzuk ezagutuko ditugu.

Raquel Calvo, hezitzaile soziala, sexologoa eta prestakuntza ikastaroetako irakaslearen eskutik.

Data: Maiatzak 7

Ordutegia: 10:30etatik 12:30etara.

Lekua: Palmera Montero 2. Aretoa

Izen ematea: apirilaren 22tik maiatzaren 5era

Norentzat: Guraso, tutore eta erantzukizun hezitzailea duten pertsonentzat

Hizkuntza: Gaztelania

IGazteren Buletin Elektronikoa

Egunean egon nahi al duzu enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi, boluntariotzari buruz?

Izena eman ezazu IGazteren buletinera, eta jasoko duzu zure postan!

CBA Kultur Gunea - San Juan plaza, z/g
www.irun.org/igazte - igazte@irun.org - 943 505 444 - Whatsapp: 607 771 173



Maiatzaren

1a

Antzerkia

Zer: “Muerte de un viajante” antzezlana, Imanol Arias antzezlearen parte hartzearekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: Sarrera orokorra 15 euro. 10 euro, berriz, langabetuentzat, Gazte Txartelaren erabiltzaileentzat, 14 urtetik beherakoentzat edo familia ugariko kideentzat.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

5a

Zure Abenturaren Bila

Zer: “Sola con mi bicicleta” hitzaldiak 4 urtez bere bizikletarekin bakarrik Londresetik Kanbodiara 44.000 km egin dituen irundarraren esperientzia ezagutzeko aukera emango du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30ean.

7a

Dantza

Zer: Eraiki dantza taldea osatzen duten dantzarien emanaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

8a

Ricardo Requejo Ganbera Zikloa

Zer: Maite Tife eta Yoichi Hakamada musikariek musika barrokoaren interpretazioa eskainiko dute bi instrumentu zahar, bereizgarri eta adierazgarri erabiliz.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

13a

Dokuirun

Zer: Isaki Lacuestaren pelikulak oso bide ezberdinak hartu dituzten Isra eta Cheíto anaien bizitza kontatzen du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan eta antzokiko leihatilan emanaldia hasi baino lehen.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

15a

Kontzertua

Zer: “Los Zigarros” talde valentziarraren kontzertua “¿Qué demonios hago yo aquí?” disko berria aurkezteko.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: Sarrera orokorra 15 euro. 10 euro 14 urtetik beherako adingabeentzat, gazte txartelaren jabeentzat, langabeentzat eta familia ugarietako kideentzat.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Denbora-pasen emaitzak



9	2	6	4	3	7	5	1	8
7	5	1	9	2	8	3	4	6
8	3	4	5	6	1	2	9	7
6	4	8	2	1	9	7	3	5
1	9	3	7	8	5	4	6	2
5	7	2	6	4	3	1	8	9
3	8	5	1	9	2	6	7	4
4	1	7	8	5	6	9	2	3
2	6	9	3	7	4	8	5	1

BEZERO BERRIAK LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU

837COMUNICACION.COM